**2020KO ABENDUAREN 22AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO BATZARRALDIAREN AKTA ALKATEA HAUTATU ETA IZENDATZEKO.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 22 DE DICIEMBRE DE 2020. ELECCIÓN Y NOMBRAMIENTO DE ALCALDE.**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.
**ARETOA**: Batzar Aretoa.
**EGUNA**: Hogeita bi
**HILABETEA**: Abendua.
**URTEA**: Bi mila eta hogei.
**HASIERAKO ORDUA**: Gaueko zortziak eta laurden
**DEIALDIA**: Lehena.

**LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain
**LOCAL**: Salón de Plenos
**DIA**: Veintidós
**MES:** Diciembre.
**AÑO**: Dos mil veinte.
**HORA DE COMIENZO**: Veinte horas y quince minutos.
**CONVOCATORIA**: Primera.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17)

**NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17)

**BILDUAK/REUNIDOS**:
EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**IDAZKARIA/SECRETARIA:**
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

A la reunión también ha asistido la interventora LURDES ALEGRIA LASA.

## 1.- ADINEKO MAHAIAREN OSAKETA

Lehendabizi, ADINEKO MAHAIA osatu da. Mahai hau adinez nagusiena eta gazteena diren zinegotziek eta Idazkariak (kasu honetan Udalarenak) osatzen dute. Adin nagusikoa den zinegotziak mahaiaren lehendakari lanak egingo ditu. Kasu honetan betebehar horiek, Xabier Matarranz Rico eta Aitor Urdangarin Irastorza dagokie.

Xabier Matarranz Rico, Aitor Urdangarin Irastorza eta Itziar Aroztegui Apaolaza idazkaria udalbatzako mahaiburura hurbildu dira eta mahaia osatuta geratu da.

## 1.- COMPOSICIÓN DE LA MESA DE EDAD

En primer lugar, se ha constituido LA MESA DE EDAD. Esta mesa está compuesta por concejales de mayor y menor edad y por la Secretaria (en este caso del Ayuntamiento). El Concejal de mayor edad presidirá la Mesa. En el presente caso tales obligaciones corresponden a Xabier Matarranz Rico y Aitor Urdangarin Irastorza.

Por lo tanto, la mesa queda constituida por Xabier Matarranz Rico, Aitor Urdangarin Irastorza e Itziar Aroztegui Apaolaza.

## 2.- ALKATEA HAUTATZEA ETA IZENDATZEA

Idazkariak azaldu du Alkatea hautatzeko leheneko pausoa izangaiak aurkeztea dela eta izangairen batek gehiengo osoa lortzen badu, hau da, 9 boto, Alkatea aldarrikatuko dela eta bestela, Alkatea izango dela boto gehien lortzen duen zerrendaburua.

Izangaiak, zerrenda buruak izan daitezke, hau da:

EAJ-PNV udal taldearen kasuan, hauteskunde-zerrendako bigarren izangaia, LEIRE ARTOLA UGALDE
Beasaingo EH BilDU, udal taldearen kasuan, NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL.
Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, udal taldearen kasuan, EVA ALVAREZ ATANES.

Hautesleak, zinegotziak izango dira.

Gertatu daiteke, izangairen batek uko egitea. Idazkariak udal talde buruei galdetu ondoren, Nera Manzisidor Mendizabal eta Eva Alvarez Atanez, zinegotziek uko egin dute Alakte kargurako izangaiak izatea.

Beraz, izangai bakarra aurkeztu da, hain zuen ere, Leire Artola Ugalde andrea.

## ELECCIÓN Y NOMBRAMIENTO DE ALCALDE.

La Secretaria explica que el primer paso para la elección del Alcalde es la presentación de candidatos y que si algún candidato obtiene la mayoría absoluta, es decir, 9 votos, se proclamará Alcalde y en caso contrario será el Alcalde quien encabece la lista que obtenga el mayor número de votos.

Los candidatos podrán ser cabeza de lista, es decir:

En el caso del grupo municipal EAJ-PNV, segundo candidato de la lista electoral, LEIRE ARTOLA UGALDE
Para el grupo municipal Beasaingo EH Bildu NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL.
En el caso del grupo municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EVA ALVAREZ ATANES.

Los electores serán los concejales.

Puede ocurrir que algún candidato renuncie. Consultadas las cabezas de lista Municipales por la Secretaria, las concejalas Nerea Manzisidor Mendizabal y Eva Alvarez Atanes, han renunciado a ser candidatas al cargo de Alcalde.

Por lo tanto, se ha presentado una única candidata, Leire Artola Ugalde.

Zinegotzi bakoitzari papeleta bat eman zaio, izangaiaren ondoan X ikurra jartzeko horrela nahi izan ezkero.

Bozketa amaitu ondoren, Lehendakari jaunak irakurri du papeleta bakoitzeko edukia. Botoen kontaketa egin ondoren emaitza ondorengoa izan da:

Botoak guztira: 17
Aldeko botoak: 10
Boto txuriak: 7

Horren ondorioz, aurkeztutako izangaiak gehiengo osoa lortu du, bera Alkatea hautatua izan da. Kargua hartzeko, ordea, beharrezkoa da Legez ezarrita dagoen zinegite-formula baieztatzea.

Adineko Mahaiaren Lehendakari jaunak zinegite-formula irakurri dio izendatutakoari, hau da: “*Zin egiten al duzu Alkate karguaren obligazioak finko beteko dituzula erregeari leial izanez eta Konstituzioa Estatuko oinarrizko arau legez betez eta bete-araziz*?”

Leire Artola Ugalde andreak, ondorengoa erantzun du: “*Bai, legeak hala behartuta zin egiten dut*.”

Beraz, LEIRE ARTOLA UGALDE andrea Alkate aldarrikatua izan da, 2019-2023 legealdiaren amaiera arte.

Aitor Aldasoro Iturbe Alkate ohiak makila entregatu dio Alkate berriari.Txaloak….

Adineko mahaikoek erretiratu egin dira eta Alkateak ondorengoa esan du:

“Eskerrik asko denoi. Aitorren kargu uztearekin eta nire kargu hartzearekin, edo Alkate makilaren traspasoarekin proiektu baten jarraipena irudikatu nahi dut. Proiektu horrek bere hastapena, Aitorrek esan duen bezala, 2011ean izan zuen eta herriko eragile, elkarte eta udaleko teknikarien laguntzarekin proiektu horrek egin du bere bidea, baina erronkak ere baditugu betetzeko. Beraz, ez da aldaketa, jarraipena baizik eta normala den moduan, bakoitzak emango dizkio bere ikutuak.

A cada Concejal se le ha entregado una papeleta para colocar una X junto al candidato si así lo desea.

Finalizada la votación, el Sr. Presidente da lectura al contenido de cada papeleta, siendo el resultado del escrutinio el siguiente:

Total votos: 17
Votos a favor: 10
Votos blancos: 7

En consecuencia, la candidata presentada obtiene la mayoría absoluta, siendo elegida la Alcaldesa. Sin embargo, para tomar posesión es necesario refrendar la fórmula de juramento legalmente establecida.

El Sr. Presidente de la Mesa de Edad ha leído la fórmula de juramento a la persona nombrada, es decir: *"¿jura que cumplirá con las obligaciones del cargo de Alcalde permanentemente fiel al Rey y cumpliendo y haciendo cumplir la Constitución como norma básica del Estado?"*

Leire Artola Ugalde responde*: "Sí, lo juro por imperativo legal."*

Por tanto, la señora LEIRE ARTOLA UGALDE ha sido proclamada Alcalde, hasta el final de la legislatura 2019-2023.

El ex alcalde Aitor Aldasoro Iturbe ha entregado el bastón al nuevo alcalde. Aplausos.

Los miembros de la Mesa de Edad se han retirado y el Alcalde ha dicho:

"Gracias a todos. Con el cese de Aitor y mi toma de posesión, y el traspaso del bastón de Alcalde quiero representar la continuidad de un proyecto. Este proyecto, tal y como ha dicho Aitor, tuvo su inicio en 2011 y con la ayuda de agentes del pueblo, asociaciones y técnicos municipales, ese proyecto ha hecho su camino, pero también tenemos retos que cumplir. Por lo tanto, no se trata de un cambio, sino de una cotinuación que, como es normal, tendrá el selo de cada uno.

Zentzu horretan, oposizioari ere eskuak zabaldu nahi dizkiot, nire prestutasuna adieraziaz, eta orain arte bezala hemen izango gaituzuela behar denerako.

Berdin herritarrei ere. Azken finean, nik hemen 5 urte luzetxo daramatzat eta saiatu naiz herritarrengandik gertu egoten eta hemendik aurrera ere noski, herritarrek behar dutenerako eta behar dutenean hementxe izango naute.

Esker atalera pasatuaz, eskerrak eman nahi nizkioke lehenik eta behin alderdiari. Aitorrek Legebiltzarrerako bidea hartu zuenean nigan jarritako konfiantzagatik. Eskerrak gure taldeari, talde bezala funtzionatzen duelako honek, proiektu hau taldean oinarrituta dagoelako eta talderik gabe ezin delako aurrera eraman. Bakoitzak bere eginkizunekin, baino denok gara ezinbesteko proiektu honetan. Eskerrak familiari, senideei eta etxekoei, azken finean udal eginkizunetan pasatzen ditudan orduetan etxean ez nagoelako eta esker berezi bat ere Aitorri; 5 urte luzez elkarrekin lanean egon gera, goizetik hasi eta gaueraino, momentu eta egitasmo asko partekatzeko aukera izan dugu eta berarengatik jasotako guztiagatik eta ikasi dudanagatik ere, eskerrik asko.

Niri tokatu zait, hala tokatu da, Beasaingo lehenengo Alkate emakumea izatea. Ohore bat da niretzako. Zorionez ez naiz lehenengo Alkatea, bai Beasainen baina ez ibilbide hauetan, baino zorionez ez da azkenekoa izango. Niri orain tokatzen zaidana da erronka berri honi erantzukizunez kargua ondo betetzea.

Azken hitzetan nire aitta ekarri nahi nuke gogora. Duela sei hilabete hil zen, eta guk txikitatik etxeko sukaldean politikaz berarekin eta berarengandik jardun izan dugu. Bera ere horrelako momentu batetan gogora ekarri nahi nuen.

Beraz, mila esker denoi eta izango dugu elkarrekin egoteko aukera.

Mila esker denagatik. Ondo segi.”

En ese sentido, también quiero tender la mano a la oposición, manifestándole mi disposición, y que nos tendrán aquí como hasta ahora para lo que haga falta.

Lo mismo digo a los ciudadanos. Al fin y al cabo, yo llevo aquí 5 años y he intentado estar cerca de los ciudadanos y a partir de ahora, claro, los ciudadanos me tendrán aquí para lo que necesiten y cuando lo necesiten.

En el apartado de agradecimientos, quisiera dar las gracias en primer lugar al partido, por la confianza depositada en mí cuando Aitor tomó el camino al Parlamento. Gracias a nuestro grupo, porque esto funciona como equipo, porque este proyecto está basado en el equipo y sin equipo no se puede llevar a cabo. Cada uno con sus funciones, pero todos somos imprescindibles en este proyecto. Gracias a la familia, a los familiares y a los de casa, porque al fin y al cabo, durante el tiempo que le dedico a las tareas municipales no estoy en casa. Y un agradecimiento especial a Aitor; hemos estado 5 largos años trabajando juntos, desde la mañana hasta la noche, hemos tenido la oportunidad de compartir muchos momentos y proyectos, y por todo lo que he recibido por él y por lo que he aprendido, muchas gracias.

Me ha tocado a mí, ha tocado así, ser la primera alcaldesa mujer de Beasain. Es un honor para mí. Afortunadamente no soy la primera Alcaldesa, si en Beasain pero no en este recorrido, pero afortunadamente no seré la última. A mí lo que me toca ahora es desempeñar bien el cargo con la responsabilidad de este nuevo reto.

En las últimas palabras quisiera recordar a mi aita. Murió hace seis meses y nosotros desde pequeños en la cocina de casa hemos hablado de política con él y por él. Quería recordarlo en un momento así.

Así que gracias a todos y tendremos la oportunidad de estar juntos.

Gracias por todo. Seguid bien. "

## ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA

Ezagutzera eman da, AITOR ALDASORO ITURBE, Beasaingo EAJ-PNV,

## RENUNCIA AL CARGO DE CONCEJAL

Se da a conocer el escrito presentado por AITOR ALDASORO ITURBE, concejal del grupo

udal taldearen zinegotziak aurkeztutako idatzia zinegotzi karguari uko eginez, hau da:

*“2019ko ekainaren 15ean Korporazio osatzeko egindako bileran, EAJ-PNVko zinegotzi kargua hartu nuen eta bilera horretan bertan, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakaria aldarrikatua izan nintzen. 2020ko irailaren 22an, Eusko Legebiltzarreko kide izatera pasa nintzen.*

*Bi karguak (zinegotzia eta parlamentaria) behar duten dedikazioarekin behar bezala ematea zaila denez, 2020ko abenduaren 21eko datarekin Alkate-karguari uko egiteko idatzia aurkeztu dut, Udalbatza Osoari zuzenduta aintzakotzat har dezan.*

*Bide batez et arrazoi berdinegatik*

*ERABAKI DUT*

*Zinegotzi karguari ere uko egitea*.

*Beraz, Udalbatza Osoari ESKATZEN DIOT, aurkezten dudan idatzi honen bidez zinegotzi karguari uko egitea, aintzakotzat hartzea.*

*Beasainen 2020ko abenduaren 21ean”*

Bildutakoek, aintzakotzat hartu dute Aitor Aldasoro Iturbe jaunaren zinegotzi kargua uztea.

Amaitzeko, Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) andreak, Aitor Aldasoro jaunari eskerrak eman dio, desadostasunak medio direla, izandako jarreragatik eta hizkuntza politika sustatzeagatik.

Leire Artola Alkate berriari zorionak eman dizkio, Beasaingo lehenengo Alkate-emakumea izateak emakumea ahalduntzeko pausoa bat izatearekiko esandako hitzak asko gustatuko zaiola adierazi du. Alkatea pertsona arduratsua dela aitortu du eta hori beraien arteko harremanetarako mesedegarria izango dela esan du.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

municipal EAJ-PNV de Beasain, renunciando a su cargo de concejal, esto es:

*"En la reunión de constitución de la Corporación celebrada el 15 de junio de 2019, tomé posesión como concejal de EAJ-PNV y en esa misma reunión, fui proclamado Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Beasain. El 22 de septiembre de 2020 pasé a formar parte del Parlamento Vasco.*

*Ante la dificultad de compaginar los dos cargos (concejal y parlamentario) con la dedicación necesaria, con fecha 21 de diciembre de 2020 presento escrito de renuncia al cargo de Alcalde, dirigido al Pleno para que lo tome en consideración.*

*Y por el mismo motivo*

*DECIDO*

*Renunciar también al cargo de concejal.*

*Por lo tanto, mediante el escrito que presento SOLICITO al Pleno que tenga en consideración la renuncia al cargo de concejal.*

*Beasain 21 de diciembre de 2020 "*

Los asistentes toman nota del cese como Concejal de Aitor Aldasoro Iturbe.

Por último, la Sra. Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) agradece al Sr. Aitor Aldasoro, la actitud mantenida y su trabajo en el fomento de la política lingüística, a pesar de las discrepancias que han tenido.

Felicita a la nueva Alcaldesa, Leire Artola, diciendo que le han gustado mucho sus palabras respecto a ser la primera alcaldesa de Beasain, porque esto supone un paso más en el empoderamiento de la mujer. Ha reconocido que la Alcaldesa es una persona responsable y que eso favorecerá las relaciones entre ellos.

Y sin más asuntos que tratar, la reunión ha finalizado a las veinte horas y veinte minutos, de la que yo, la Secretaria, redacto y firmo la presente acta.